

Misinoetarako Elizbarrutiko Ordezkaritza
Delegación Diocesana de Misiones

DOMUND 2020
“Hemen nago, bidal nazazu” (Is 6, 8)

Eleiza osoaren bide misiolariak jarraitu egiten dauala gogoratzen deusku Frantzisko Aita Santuak egun honetarako idatzi dauan mezuan. Gaur sekula baino beharrezkoagoa dan bokazino misiolariaren barritzaile, sortzaile, bultzatzaile eta eragile izatera bultzatu eta munduko herri guztietara Jainkoaren maitasunaren lekuko lez bialdu gaituan EHMa ospatzetik gatoz.

“Testuinguru honetan, misinorako deia, Jainkoaren eta lagun hurkoaren aldeko maitasunagaitik geure baitatik atarateko deia, banatzeko, zerbitzatzeko eta bitarteko izateko aukeratzat hartu daiteke”.

Koronabirusak eragindako krisialdian, ezin dogu alperrik galdu krisi honen ondorioz nahitaez bizi izan dogun guztitik ikasteko aukera: “ez dago une egokiagorik zeinu, laguntza, otoitza guztiek, txikiak izanda be, Eleizaren jarduera misiolarian egundoko oihartzuna dabela konturatzeko” (OMP erakundeko zuzendari nazionalaren berbak kanpaina honen inguruan).

Aita Santuak, DOMUND egun hau eta hilebete misiolaria dagokien testuinguruan jarten dituan goiburuaren –“PREST NOZU, BIALDU NEU” (Is 6, 8), goiburuaren bidez, zera nabarmendu gura dau: ezinbestekoa dala gure aldetik jarrea, geure “PRESTASUN PERTSONALA” erakustea, mandatari izateko, Bera Maitasun dalako”. Dei egiten deusku, gainera, esanez: “Abia gaitezen, irten gaitezen guztiei Jesu Kristoren bizitza eskaintzera” (EG 49). Hitzok, azken batean, adore emoten deuskue ospatuko dogun misiolari jardunaldi honetarako.

Geure egingo dogu misinoren munduko jardunaldi hau Eleiza osoarekin bat eginda ospatzeko deia eta dei egingo deutsegu alkarte guztiei DOMUND eguna dala-eta misiolari lankidetzarako antolatutako askotariko jardueretan parte hartu daien. Jentea batzea gatxa izan daitekenez osasun egoeraren eraginez, lagungarriak prestatuko doguz misiolarietik hartu-emona eta gertutasuna sustatu ahal izateko.

DOMUND egun ona izan daigula egun eta hilebete misiolari hau aprobetxatu daigula hausnartzeko, ekiteko eta gure talde eta alkarteetan misiolari bokazino barriak sustatzeko!

“Jainkoak bila jarraitzen dau jentea munduko herri guztietara jentea bere maitasunaren lekukotasuna emotera bialtzeko...”, dinosku Aita Santuak.

Eskerrik asko, misinoa bost kontinenteetan garatu daiten kanpaina honetan laguntzen dozuen guztioi!

Feli Martín
Misinoetarako Elizbarrutiko Ordezkaritza